

KONPAINIAK

NORI ZUZENDUA:

Berriki sortutako ikuskizunak aurkezten dituzten antzerki- eta dantza-konpainia profesionalei, baldin eta ikuskizunok, jatorriaren arabera, gehienez ere data hauez geroztikoak badira:

- Euskal konpainiak: 2017ko martxoaren 10a.
- Estatuko konpainiak: 2017ko martxoaren 10a.
- Atzerriko konpainiak: Estreinaldiak edo Espainian oso emanaldi gutxi izan dutenak.

Oharra: Estatuko eta atzerriko konpainien kasuan, aintzat hartuko dira estreinaldiak eta erakunderen batek bidaiak finantzatzea.

NOLA PARTE HARTU:

Arte-proposamenen aurkezpena:

dFERIA-n parte hartzeko interesa duten konpainiek webgunean eman beharko dute izena: www.dferia.eus. Han aurkituko dute bete beharreko izen-emate fitxa, eta ikuskizunaren dossier osoa eta fitxa teknikoa erantsi beharko dizkiote, **abuztuaren 1a eta irailaren 15 bitartean**. Antzerki-lanaren DVDa honako helbide honetara bidali beharko da:

dFERIA DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN

Victoria Eugenia Antzokia
Erregina Erregeordearen kalea, 8
20003 Donostia / San Sebastián
E-mail: dferia@donostia.eus
Webgunea: www.dferia.eus

dFERIA-K HAU ESKAINTZEN DIE HAUTATURIKO KONPAINIEI:

- Akreditazioa eta dFERIAk irauten duen egunetarako ostatua konpainiaren ordezkari batentzat.
- Sarrera bat ordezkari akreditatu eta ikuskizun bakoitzeko, aurrez erreserba egin ondoren.
- Topagunerako sarbidea.
- Ikuskizunen emanaldirako, antolatzaileek bere gain hartzen dituzte cachearen % 50, beharrezko ostatu-gastuak (beharrezko balira), dieta eta antzoki bakoitzaren fitxa teknikoa.
- Konpainiak adierazitako zenbait programatzaile gonbidatzeko aukera.

HAUTATURIKO KONPAINIEK dFERIAREKIN HARTZEN DUTEN KONPROMISOA:

- Egindako salmenten kopurua hiru unetan jakinaraztea: feria amaitutakoan, hiru hilabetera eta, azkenik, sei hilabetera.
- Ikuskizuna ferian erosteagatik % 10eko deskontua egitea.

Izen-emate orria dFERIAko webgunean dago eskuragarri: www.dferia.eus